

1.2. Badirudi gomendagarria dela [Eusko Jaurlaritzak IMSERSOra](#) bidaltzen dituen datuetan berrikuspena barne hartzea, bai banakako arreta planari (BAP) dagokionez, bai onartutako gradu eta mailai dagokienez; bereziki, kontuan hartuz aldaketa horien bidez zerbitzu edo prestazio bihur daitezkeela, baita kopuruaren aldaketa –prestazio ekonomikoen kasuan–, etab. ere.

1.3. Beharrezkoa da informazio bateratua, ulergarria eta herritar guztientzat eskuragarria eskaintzen duten bideak sortzea.

2. Lurraldeen artean dauden desorekak gainditzea bermatzea

Txosten honetako [7.5. atalean](#) azaldu dugun bezala, lurraldeen artean desberdintasunak daude autonomia pertsonalari eta menpekotasunari buruzko araudiaren garapenean, aplikazioan eta interpretazioan, eta baliteke horrek euskal herritarrek beren eskubideak berdintasunez gozatzearen gainean eraginak izatea. Hori dela eta, komenigarria izango litzateke distortsio horiek ekiditeko bide egokiak lantzea.

Zentzu horretan:

2.1. [Gizarte Zerbitzuen Erakunde-arteko Organoa](#)⁹³ euskal herri-administrazioen artean erakunde-arteko lankidetzeta eta koordinazioa artikulatzeaz arduratzen da, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistema bateratuta bermatzeko eta lurralde autonomiko osoan prestazioak eta zerbitzuak modu koherente eta harmonikoan gara daitezen; eta horretarako, bere ekintzak helburua erdiestera bideratu beharko ditu, kasuan kasuko administrazioen parte-hartzea eta inplikazioarekin.

2.2. Gizarte-zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritzak Gizarte Zerbitzuei buruzko [12/2008 Legeko](#) 2. artikulua aldarrikatzen duen eskubide subjektiboa benetan gauzatzeko eskubidea bermatzeko eskumena du, eta haren jarduera gizarte-zerbitzuen sistemak behar bezala eta modu orekatuan funtzionatzen duela egiaztatzeko egingo du lan, haren dekretu arauemaitzeko 4.2. artikuluan xedatzen den bezala⁹⁴.

2.3. Beharrezkoa izango da Gizarte Zerbitzuen Legearen garapenak EAEEn oro har lortzea komeni den arreta-maila ezartzeko, gizarte zerbitzuak eta prestazioak berdintasunez eskuratzeko direla bermatzeko, haien estaldurarako eta kalitate-mailarako, eta prezio publikoen arloko irizpide bakarrak ezartzeko ematen duen aukera aprobetxatzea. Azken finean, garapenak gizarte-zerbitzuen arloan oreka bermatu behar du lurraldean, baliabideak berdintasunez banatzeko eta zerbitzuak eta prestazioak berdintasunezko irizpideen arabera eskuratzeko.

⁹³ [101/2010 Dekretua, martxoaren 30ekoa.](#)

⁹⁴ [238/2010 Dekretua, irailaren 14koa, Gizarte-zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritzarena.](#)